



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena**

### **Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa**

### **Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 22a**

**Vitoria-Gasteiz, 22 de marzo de 2016**



## Lehendakaritza

### GOBERNU-KONTSEILUAK ONARTU DU NAFARROAK AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEAREKIN BAT EGITEA

Gobernu Kontseiluak gaurko saioan onartu du Nafarroako Foru Erkidegoak Akitania-Euskadi Lurralde Lankidetzako Europako Taldean bat egiteko hitzarmena sinatzea. Joan den ostiralean onartu zuen euroeskualdeak Nafarroak bat egitea. Ondoren egindako ekitaldi batean, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Akitaniako presidente Alain Roussetek ongietorria eman zioten Europako korporaziora Nafarroako presidente Uxue Barkosi.

Gobernu Kontseiluak adierazi du euroeskualdea handitzen ari dela, eta dimentsioa eta eragiteko gaitasuna irabazten ari dela. Lehendakariak nabarmendu du euroeskualdeak indartsuago helduko diola «etapa berriari», bai iparraldean, bai hegoaldean. Nafarroak bat egin izanaz gain, gogoratu behar da Akitaniak Limousin eta Poitou-Charentes barneratu dituela, Frantziako eskualdeen berregituraketaren ondoren. Hala, euroeskualdea 5,5 milioi pertsona batzetik 8,7 milioi batzera igaroko da.

#### **Bat-egiteko prozesua**

Aurretik ere bazegoen Euskadi, Akitania eta Nafarroaren arteko aldizkako mugaz haraindiko lankidetzak. Baina 2011. urtea inflexio-puntu bat izan zen, euroeskualdeari nortasun juridikoa eman baitzaio, Lurralde Lankidetzako Europako Taldearen (LLET) figurari esker.

2011ko abenduaren 12an, Akitania-Euskadi Euroeskualdea LLETa sortu zen eta 2015eko urrian Nafarroak bat egiteko eskatu zuen. Joan den ostiraleko batzarrean, Akitania-Euskadi euroeskualdeak baiezkoa eman zion Nafarroari. Erabaki hori gobernu bakoitzeko kontseiluek baietsi behar dute orain. Eusko Jaurlaritzak gaur eman dio baiezkoa.

Jarraian, Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak onartu beharko du eta horrek Frantziako Estatuari jakinarazi beharko dio. Beraz, Nafarroako Foru Erkidegoa 6 hilabeteko epean atxikiko da euroeskualdera.

#### **2015eko balantzea eta etorkizuna**

Euroeskualdearen batzarren ostean, lehendakariak azken urtean egindako lana balioztatu du; duela bi urte onartutako Plan Estrategikoan, 2020ra arteko «bide orrian», finkatutako ildoak jarraituz egin da lan hori, hain zuzen. Urkulluk adierazi du strategiaren hiru ardatz nagusiak indartuko direla: euroeskualdeko herritartasuna, konektibitatea eta kultura-jarduera hobetuz; ezagutzaren ekonomia eta prestakuntza, lehiarako berrikuntza eta enpresa; eta azkenik, lurralde jasangarria, garraioa eta mugikortasuna sustatuz.

Ondoren, etorkizunerako hainbat proiektu ezagutarazi dituzte. Hurrengo urteari begira, euroeskualdeak DSS2016 Europako Kultura Hiriburua proiektua bultzatuko du; euskarazko irratien ekoizpenerako Zubiak proiektua; langileentzako eta enpresentzako informazio-atari bat; euroeskualdeko LH sistema berri bat jarriko da martxan eta euroeskualde mailako Global Training beken lehenengo deialdia egingo da.



Euroeskualdearentzat 1,1 milioi euroko aurrekontua finkatu da 2016rako ere eta Euskadik eta Akitaniak erdi bana ordainduko dute. Kide diren gobernuen horniduraz gain, euroeskualdeak proiektu zehatzetarako diru-laguntzak jasotzen ditu Europar Batasunaren eskutik.

### **Presidentetzaren aldaketa**

Topaketa horretan, euroeskualdeko presidentetza aldatu da –bi urtean behin txandakatzen da–. Lehendakariak Alain Rousseti eman dio makila, Europako elkarteko lidergoaren ikur gisa.

## Herri Administrazioa eta Justizia

**EUSKO JAURLARITZAK OSO POSITIBOKI BALORATU DITU PARTE-HARTZEAREN, PUBLIZITATE AKTIBOAREN, GARDENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN ARLOAN LEGEGINTZALDI HONETAN IZANDAKO AURRERAPENAK**

- 2015ean, Jaurlaritzak Lege Proiektu bat onartu eta Legebiltzarrera igorri zuen arlo honetako herritarren eskubide berriak arautzeko, gardentasunerako berezko atarian, GARDENAn, dagoen informazioa gehitu zuen, eta publizitate aktiboaren sistema eratu zuen *informazio publikoa eskuratzeko eskaerei* modu ofizialean erantzuteko.
- Eusko Jaurlaritzak 13,7 milioi euro inbertituko ditu aurten EAEko administrazio publikoa berritzeko, eta horietatik, ia 600.000 euro zeharkako lan-ardatz horretara bideratuko dira.

Gobernu-kontseiluak *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan gardentasuna ezartzearen 2015eko balantzea* onartu du gaurko bileran. Txostenak Eusko Jaurlaritzak gardentasun eta gobernu onaren inguruko izandako ezarpena eta aurrerapenak aztertzen eta baloratzen ditu. Gardentasunaren inguruko 19/2013 Legea betetzeko publizitate aktiboan eta informazio publikoa eskuratzean biltzen da, batez ere.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Dokumentu honen onarpena dela eta, EAEko administrazio publikoak uneotan duen posizioaren balorazio oso positiboa egiten du Eusko Jaurlaritzak, gardentasun, publizitate aktibo, parte-hartze eta gobernu onaren inguruan. Sentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan aurrerapen handiak eta jauzi kualitatiboak egiaztatu ditu; besteak beste:

- **Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren lege-proiektua** onartu egin da, eta parte hartzeko eta gardentasuneko prozesuak dokumentatzeko funtsezko hiru argitalpen aitzindari idatzi, argitaratu eta herritarren eskura jarri dira.
- **GARDENA** izeneko Eusko Jaurlaritzako **GARDENTASUNEKO** berezko ataria hobetu da eta hor dagoen informazioa gehitu da.
- Sistema bat abian jarri da **ZUZENEAN** zerbitzuaren bitartez *herritarren informazio-eskaera* guztiei modu ofizialean **ERANTZUTEKO**.
- **PARTE-HARTZEARI** bultzada eman zaio **IREKIA** atariaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzak 13,7 milioi euro inbertituko ditu aurten EAEko administrazio publikoa berritzeko, eta horietatik, ia 600.000 euro, publizitate aktiboaren, gardentasunaren eta Gobernu Onaren arlora bideratuko dira. Arlo hori zeharkako lan-ardatza da, eta barne hartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak; haren topaketa-foro nagusia [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgune ofiziala da.

## ARAU-ESPARRUA ETA ARGITALPENAK

Eusko Jaurlaritzak **Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren lege-proiektua** onartu eta Eusko Legebiltzarrera igorri zuen azaroan; funtsezko arau-testu horri esker legez egituratu ahal izango dira XXI. mendeko administrazio publikoak oinarri izan behar dituen herritarren eskubide berriak, eta Euskadiri lagunduko dio gardentasun-estandarrei buruzko lidergoari eusten; horrez gain arlo horretako araudirik jada duten Europako administrazioen pare eta mailan kokatuko du Euskadi.

Lege-proiektu ausarta da, EAEko administrazio publikoaren beharrezko berritze eta modernizatzeari aurre egiten diona. Politika publikoak ebaluatzeko, gai publikoetan parte hartzeko eta Euskadin administrazio publikoek sortzen duten informazioa askatasunez eta gardentasun osoz jotzeko herritarrek dituzten eskubide berriak arautzen ditu. EAEko hiru erakunde-mailei eragingo die, baita horien mendeko erakunde instrumental guztiei ere, euskal erakunde bakoitzaren antolamendu-autonomiarako eskumenak alde batera utzi gabe.

Lege-proiektu horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak bestelako testu garrantzitsu batzuk ere argitaratu eta herritarren eskura jarri ditu legegintzaldi honetan; besteak beste:

- **Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuria**, administrazio publiko batek Euskadin egindako era horretako lehena. Liburua egiten 400 pertsona inguruk eta era guztietako 150 erakundek parte hartu zuten.
- **Gardentasunean ontziratuko gara** langile publiko eta politikoentzako lan teknikoa da. Oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak argitzea ez ezik, kudeaketa publiko gardenagoa eta herritarrei irekiagoa egiteko ideiak eta tresnak ematea ere badu helburutzat.
- **Bidaia-gida. Parte-hartzea. 100 esplorazio, hurbilketa eta ibilbiderako orientabideak** administrazio publiko orok abian jarri nahi duen edozein parte-hartze prozesu hasi, garatu eta ebaluatu ahal izateko gakoak ematen ditu lan horrek. Parte hartzeko prozesuaren fase guztiak identifikatu, zenbakitu eta azaltzen ditu, eta horietako bakoitzean nola jokatu zehatz-mehatz azaltzen du. Prozesuaren autoebaluaziorako eskuliburu bat ere jasotzen du. QR irakurketa-kodeko formatu original batean ere badago eskuliburu hori; hirugarren online argitalpen batera eramaten du horrek, zeinak parte-hartzearen esperientzia eraginkortasunez neurtzen irakasten digun.

## GARDENTASUNA: GARDENA

Eusko Jaurlaritzak GARDENA hobetu du eta atari honek eskaintzen den informazioa gehitu du. Pasden urtetik, atari horretan informazioa antolatzen eta biltzen da: sektore publikoko kontratu guztiak –handiak eta txikiak–, emandako laguntzak eta diru-laguntzak, langile publikoen lanpostuen katalogoa, goi-mailako kargudunak, behin-behineko eta zuzendaritzako langileak, soldatak, kargu publikodunen bateragarritasun-ebazpenak, kargua uzteagatik kalte-ordainak, legebiltzarreko galderak eta erantzunak, kontu publikoak, hitzarmenak, lanak eta zerbitzuak...

GARDENAK 5.532 bisita jaso zituen 2015ean; bisitak 2014an baino % 47 gehiago izan dira. Herritarrei gai hauek interesatzen zaizkie batez ere:



## GARDENARA EGINDAKO BISITAK 2015EAN KONTSULTATUTAKO ARLOAREN ARABERA

	<b>2015</b>	<b>2014</b>
Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa (organigramak, arduradun publikoen agenda, planifikazioa...)	<b>1.422</b>	571
Harremanak herritarrekin eta gizartearekin (zerbitzu-katalogoa, kezak eta iradokizunak bidaltzeko postontzia...)	<b>593</b>	221
Gardentasun ekonomiko-finantzarioa (kontuak, urteko aurrekontuak, aurrekontua betearaztea...)	<b>729</b>	372
Zerbitzuen eta horniduren kontratazioa (lizitazioak, kontratuak, hitzarmenak...)	<b>584</b>	223
Lurralde-antolamendua, hirigintza eta obra publikoak (lurralde-antolamendurako plana, ingurumenaren babes-planak eta natura baliabideen antolamendua, azpiegitura-obra estrategikoak...)	<b>198</b>	108
Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	<b>1.715</b>	2
Gardentasunari buruzko eduki orokorrak	<b>850</b>	66
<b>Gardena webgunea orotara</b>	<b>5.532</b>	<b>3.775</b>

*Transparency International* erakundearen azken bi ebaluazioetan (2012 eta 2014) GARDENA lehen tokian zegoen autonomia-erkidegoen zerrendan, puntuazio handienarekin (100 puntu 100etik). Erakunde hori gardentasuna sustatzen jarduten duen gobernuz kanpoko erakunde garrantzitsuenetako bat da munduan.

GARDENAN jarritako datu guztiak formatu irekian eta berriz erabiltzekoan (Open Data) egon daitezen lortzeko helburua du Eusko Jaurlaritzak. Hori horrela, 2015ean argitaratutako datu irekiak eta berriz erabiltzekoak % 33 gehiago izan dira, hau da: 2014an 118 dataset jarri zituzten, eta iaz 157 izan ziren; hauek izan dira arlo esanguratsuenak:

- Enplegu eta gizarte-politika-estatistikak: 31 dataset
- Hezkuntzako estatistikak: 27 dataset
- Ingurumeneko estatistikak: 9 dataset



## HERRITARRENTZAKO ERANTZUN OFIZIALA: ZUZENEAN

2015ean ere jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak berezko sistema bat era ofizial batez erantzuteko «*herritarren informazio-eskaerei*». Eusko Jaurlaritzaren herritarren arretarako ZUZENEAN zerbitzuaren bitartez kudeatzen da, eta, abian jarri zenetik, 30 eskaera jaso ditu, gehienbat ingurumeneko (10) eta ekonomiako (6) gaietara dagokienez. Horietatik % 73,3k aldeko ebazpena izan dute:

### 2015EKO INFORMAZIO-ESKAEREN EBAZPENA

Informazio osoa eskuratzea	22 (% 73,3)
Informazioa partzialki eskuratzea	1 (% 3,3)
Onartu gabe (*)	3 (% 10)
Ukatuta (**)	3 (% 10)
Atzera eginda (***)	1 (% 3,3)
<b>OROTARA</b>	<b>30</b> <b>(% 100)</b>

Ukatutako eskaera batean berraztertze errekurtsoa jarri dute.

(\*) Hiru (3) eskaera ez dira onartu: bitan jo zuten erakundea edo organoa eskuduna ez zelako, eta hirugarren kasuan bikoiztutako eskaera zelako.

(\*\*) Hiru (3) eskaera ukatu dira: bi kasutan, eskatutako datuak beste pertsona batzuen pribatutasunari zegozkiolako eta horiek baimenik eman ez zutelako. Eta batean, informazio-eskaera bikoiztua zelako eta Eusko Jaurlaritzaren beste instantzia batean jada jasota zegoelako.

(\*\*\*) Eskaeretako bat atzera egindakotzat jo zen, eskatutako informazioa ez baitzuen zehaztu zegoen eskaera egin ondoren.

### 2015EKO INFORMAZIO-ESKAERAK (gaiaren arabera)

GAIA	EBATZITA
Erakundeak, antolamendua eta plangintza (urteko eta urte anitzeko planak eta programak...)	1
Ekonomia, aurrekontua eta estatistika (kontratuak, esleipenak, jarduera-estatistikak, ondarea...)	6
Obrak	3
Software librea/jabetzako softwarea	1
Funtzio publikoa (hautaketa, lan-harremanak, langileen kudeaketa...)	3
Prozedura judizialak	2
Ingurumena	10
Segurtasuna	2
Espediente okerrak (probak, eskaera errepikatua...)	2
<b>OROTARA</b>	<b>30</b>

**2015EKO INFORMAZIO-ESKAERAK  
(Eusko Jaurlaritzaren sailaren arabera)**

<b>SAILA</b>	
Lehendakaritza	1
Herri Administrazio eta Justizia	6
Ekonomiaren Garapen Eta Lehiakortasuna	6 + 1*
Enplegu eta Gizarte Politikak	1
Ogasun eta Finantzak	1
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	2
Segurtasuna	2
Osasuna	4
Ingurumen eta Lurralde Politika	6 + 1*
<b>OROTARA</b>	<b>30</b>

**\*Bi ebazpen dituen eskaera**

**IREKIA**

IREKIA Jaurlaritzaren parte hartzeko atariak herritarren parte-hartze eta lankidetzarako hiru eremu ditu:

- Lehena *Jaurlearitzaren proposamenak* jasotzeko. Jaurlaritzaren ekimenei (lege-aurreproiektuei, planei, dekretuei eta abarrei) edo Jaurlaritzaren sailek parte-hartzea bultzatzeko argitaratzen dituzten ekimenei buruzko iruzkinak, kontsultak eta ekarpenak egin ditzakete herritarrek eremu horretan.
  - Bigarrena *Herritarren proposamenak* jasotzeko. Hala nahi dutenek interesgarri deritzoten edozein gai publikori buruzko ekimenak sor ditzakete.
  - Hirugarrena, *sare sozialetan*, edozein gai publikoren inguruko parte-hartzea bultzatzeko, zeharkako gaien eztabaida bultzatzeko, hala nahi duenak esku hartzea errazteko, eta abar. Horrez gain, proposamen horien eztabaidak parte-hartze berria gertatzen den eremu naturalera hurbiltzea da sare sozialetan egotearen helburua.
- ✓ Batzuetan mikroparte-hartzeaz mintzatzen da; parte hartzeko era berri bat da, non interakzioa maiz «partekatzerara», «iritzia ematera» eta ingurune sozial berrietara eramandako adierazpenekin ados gaudela edo bat ez gatzela adieraztera mugatzen den.
- ✓ Administrazioak aldaketa horien bilakaerari adi egon behar dira, horiei esker gardentasuna, lankidetzeta eta parte-hartzea areagotuko baitira.





✓ Irekia bere ekimenak sare sozialetara berrorientatzen ari da, herritarren interakzio soziala gertatzen den espazio naturala direlakoan. Eta webgunearen operatibitate osoari eusten dio ekimen guztien gordailu eta herritarren interesen zein zalantzen hartzaile gisa. Mobile bertsio berria aurkeztuko du aurki orientazio horren erakusle.

Ekarpen guztiak aztertzen dira eta ardura publikoak dituzten pertsoneri helarazten zaizkie, horien berri jaso dezaten eta/edo erantzuna eman dezaten. Politikak prestatzen, diseinatzen eta egiten dituzten pertsonen eguneroko lana aberasten dute ekimen horiek guztiek.

## Herri Administrazioa eta Justizia

### JAURLARITZAK EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAN ZUZENDARITZA-ERANTZUKIZUNA DUTEN BEHIN-BEHINEKO KARGUDUNEN ETA LANGILEEN KATALOGOA EGUNERATU DU

- Katalogoa herritar guztiek dute eskuragarri, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean, Jaurlaritzak gardentasun handienaz jokatzeko, publizitate aktiboa egiteko eta herritarrek erantzukizun publikoa dutenen lanpostuei buruzko informazio guztia eskura jartzeko konpromisoari jarraikiz.

Gobernu-kontseiluak «*Euskal Autonomia Erkidegoko Kargu Publikodunen Katalogoa*» onartu du gaur. Hala, katalogoa sortzeko Dekretuaren Xedapen Gehigarria betetzen da (2014ko azaroa), xedatzen baitu Eusko Jaurlaritzak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan eguneratu beharko duela.

Eguneratzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak herritar guztien eskura jarri du, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgune ofizialean, gardentasun handienaz jokatzeko, publizitate aktiboa egiteko eta herritarrek erantzukizun publikoko karguak dituzten pertsonen buruzko informazio guztia eskura izateko eskubidea betetzeko duen konpromisoari jarraikiz.

Katalogo horren barruan «*Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko*» kargu publikodunen eta behin-behineko langileen postu guztiak daude, bai eta Eusko Legebiltzarrean onartutako «*Kargu publikoen interes-gatazken ereduak kodea arautzen duen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2.1.e) artikuluan jasotako organo eta erakunde*»etako kargu publikodunen eta behin-behineko langileen postu guztiak ere.

#### 4 MILIOI EUROKO AURREZPENA

**Eusko Jaurlaritzari** dagokionez, legegintzaldi honetan % 21,13 murriztu da kargu publikodunen eta behin-behineko langileen egitura; murrizketa horrek 4 milioi euro aurrezteka ekarri du.

#### EUSKO JAURLARITZAKO ARDURAZKO KARGU PUBLIKODUNAK

	2009	2013	Aldea	%
LEHENDAKARIA	1	1	0	% 0
SAILBURUAK	10	8	-2	-% 20,00
SAILBURUORDEAK	35	30	-5	-% 14,29
ZUZENDARIAK	124	98	-26	-% 20,97
AHOLKULARIAK ETA KONFIANTZAKO LANGILEAK	95	72	-23	-% 24,21
OROTARA	265	209	-56	-% 21,13

## Herri Administrazioa eta Justizia

### **EUSKO JAURLARITZAK KIDE BABESLEEN ITZARRI-BGAE-KO BATZAR NAGUSIKO ORDEZKARIAK BERRITZEA ERABAKI DU**

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur egin duen bileran, erakunde kide babesleen Itzarri-BGAEko Batzar Nagusiko ordezkariak berritzea erabaki du. Horrenbestez, ordezkarietako batzuk kargutik kenduko ditu eta beste batzuk izendatuko ditu.

#### Kargu uzteak:

- Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga, Ogasun eta Finantza Sailekoa.
- Iñaki Aldekogarai Labaka, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailekoa.
- Javier Carlos de Bergara Etxezarreta, Lanbideren Erakunde Autonomokoa.
- María Elena Lete García, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailekoa.
- María Luisa Arteagoitia González, Osasun Sailekoa.
- Francisco Javier Gil Goikouria, EHUKoa.

#### Izendapenak:

- Xabier Arrieta Goiri, Ogasun eta Finantza Sailekoa.
- María Teresa Amezqueta Alegría, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailekoa.
- Nestor Arana Arabaolaza, Lanbideren Erakunde Autonomokoa.
- Fernando Uriondo Ispizua, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailekoa.
- José Luis Elexpuru Marcaida, Osasun Sailekoa.
- Xabier Etxaniz Erle, EHUKoa.

## Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK ARCELORREN “ITXIERA PARTZIALARI” AURRE EGITEKO UROLA GARAIA ESKUALDERAKO PROPOSAMENA ZEHAZTUKO DU ENPRESA-BATZORDEAREKIN ETA GAINERAKO ERAKUNDEEKIN BATERA, ENPRESAREN ZUZENDARITZARI HELARAZI AURRETIK**

Urola Garaiko lantokiaren “itxiera partziala” ezin onartuzkoa iruditzen zaigu euskal erakundeei, altzairu-jardueren berregituraketak Estatuan Euskadiko lantokiei soilik eragin dielako eta multinazionalak beste era batera jokatu dezakeelako. Beharrezkoak diren inbertsioak gauzatuz gero, Zumarragako lantegia bideragarria izan daiteke.

Orain astebete Arcelor enpresak Urola Garaiko lantokiaren itxiera partziala eta bertako 325 langileak enpresaren beste lantoki batzuetan birkokatzea iragarri ondotik, Eusko Jaurlaritzak alde eta moldez adierazi du enpresaren erabakiarekin ez dagoela ados.

Gainera, Arcelor enpresaren erabakiak eragindako erakundeek, tartean, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ezkio-Itxaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalek, ekimen bateratua abian jartzea adostu zuten, eskualdeko jardura industrialaren iraunkortasuna defendatzeko.

Arcelor enpresari proposamen bateratua helarazteko konpromisoa betez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, industriako eskumena dagokion aldetik, itxiera partzialaren ordezkotzako aukerak aztertu ditu, **bi helburu** argirekin:

#### **1.- Jarduera industrialari jarraipena ematea eta industriako enpleguari eustea Urola eskualdean.**

Industriaren iraunkortasunari dagokionez, aitortu behar da altzairuaren sektoreak zailtasun objektiboak dituela, eta, zehazki, Urola Garaiko lantokiak gabetasunak dituela eta lehiakortasuna falta duela. Lehenei aurre egiten ari zaie, eta, bigarren alderdi horri dagokionez, izaera estrategikoko esku-hartze bat behar da, hain zuzen, proposamen honek xede duena.

#### **2.-Erakundeen eta sindikatuen parte-hartzeak eta lankidetzak tartea izango duen agertokia aztertzea.**

Egungo egoeran ez bezala, hots, erabakia erabat dago enpresaren esku eta erakundeek ez dute horretan zeresanik, ordezkotzako bide bat aztertu nahi da, enpresak eta langileek ekimena izango dutena eta erakundeak eta zein bere eskumenen arabera arituko direna.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### **EUSKO JAURLARITZAK DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKATZEKO TXARTELA LORTZEKO KASUAK GEHITU DITU**

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñaren proposamenez, Jaurlaritzak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren dekretu arautzaile berria onartu du. Hala, txartelaren titular izateko kasuak gehitu dituzten, Estatuko oinarritzko araudiarekin bat etorritz (1056/2014 Dekretua, abenduaren 12koa).

Mugikortasun urritzen dien desgaitasuna duten pertsonentzako ibilgailua aparkatzeko txartela dokumentu publikoak egiaztatzen du pertsona horiek beren helmugatik ahalik eta gertuen aparkatzeko duten eskubidea, eta bost urtean behin berri behar da. Araudiak xedatutakoaren arabera, hiriguneetako jarduera-eremu nagusietatik gertu, 40 aparkaleku edo frakzioko gutxienez erreserbatutako aparkaleku bat egon behar da aparkatzeko txartelaren titularrek erabiltzeko diseinatuta, egoiliarrentzako eta lantokietako aparkalekuak gorabehera. Udalek ematen dituzte Europar Batasuneko estatu-kide guztietan erabil daitezkeen txartel hauek.

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu duen arauak hainbat berritasun ditu, besteak beste, bizi-funtzioak gauzatzeko gailu teknikoak (adib., gurgil aulki bereziak, arnasteko gailuak, etab.) etengabe behar dituzten hiru urtetik beherako mendeko adingabeei titular izateko eskubidea zabaltzen die. Halaber, dagokien lurralde historikoko Foru Aldundiko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuaren arabera, 4. eta 5. mailetako desgaitasuna (patologia larria edo oso larria) duten adin-tarte horretako pertsonen ere zabaltzen die eskubidea.

Aurrekoek ez ezik, aparkatzeko txartela lortzeko eskubidea izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriretakoren batean bizi diren, desgaitasuna ofizialki errekonozituta duten eta, % 33tik beherako mailakoa izan arren, ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo ezintasun handia errekonozituta duten pertsonen ere.

Era berean, aparkatzeko txartelaren titular izan daitezke ikusmen hobeko begian zuzenketarekin 0,1eko zorrotasuna edo hortik beherakoa dutenek edo ikusizko eremua 10 gradura edo gutxiagora murriztuta dutenek; neuroendekapenezko gaitzengatik mugikortasunezko mugak dituztenak; eta desgaitasunak dituzten pertsonen garraioan soilik erabiltzeko ibilgailu egokituen titularrak diren pertsona fisikoak eta juridikoak, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasunei arreta emateko gizarte-zerbitzuak ematen badituzte.

## Enplegu eta Gizarte Politikak

### **JAURLARITZAK SEME-ALABAK IZATEA ETA ADOPTATZEA 27,5 MILIOI EUROREKIN BABESTU DU**

Jaurlaritzak seme-alabak izateagatik edo adoptatzeagatik familiei ematen zaizkien laguntzak finantzatzeko, 27,57 milioi euro bideratzea baimendu du.

Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak hiru jarduketa-ildoren bidez garatuko dira: ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, erditzeagatik edo adopzio nazional anitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik.

Seme-alabengatik laguntzak jaiotze, adopzio eta adopzio aurreko familia-harrera edo tutoretza dela-eta emango dira. Horrenbestez, lehenengo seme-alabagatik ordainketa bakarra egingo da; bigarren seme-alaba izatean, jaiotzen den urtean ordainketa bat egingo da eta urtea betetzen duenean bigarrena. Hirugarrenaren eta hortik aurrerakoan kasuan, jaiotzen diren urtean ordainketa bat eta beste bat urte bat, bi, hiru, lau, bost eta sei betetzen dituzten urtean.

Diru-laguntzaren eskatzaileak % 33ko edo hortik gorako ezintasun aitortu bat baldin badauka edo aitortutako mendekotasun egoera bat, zenbatekoak bikoiztu egingo dira.

Erditze edo adopzio nazional anitzagatik laguntzak erditze berean jaiotako seme-alaba kopuruaren edo aldi berean adoptatutako seme-alaba kopuruaren arabera emango dira.

Azkenik, adingabeen nazioarteko adopzioagatik laguntzak, adopzioa sinplea edo anitza izan gorabehera, aldi beheran adoptatutako adingabe kopuruaren arabera emango dira.

Familiako bizitza eta laneko bizitza uztartzeko laguntzekin gertatzen den bezala, aurreko laguntzak ere familia-errentaren estandarizazio-sistemaren arabera arautuko dira.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### 5 MILIOI BILBON PAGASARRIBIDE INSTITUTUAREN ERAIKIN BERRIA EGITEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 5.057.978,26 euroko gastua baimentzea, Bilboko Larraskitu kalean Pagasarribide Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikin berria eraikitzeko (IES Pagasarribide BHI).

Eraikuntza-proiektuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 200 ikaslerentzako gaitasuna izango duen eraikin berria jasotzea proposatzen du. Lau solairuko eraikina izango da: erdisotoa, behe solairua eta honen gainean eraikitako bi solairu; eraikitako 3.326 metro koadroko azalera guztira. Barnean izango dituen instalazio nagusien artean, zortzi ikasgelez gain, aipatzekoak dira: jangela eta officea, liburutegia, gimnasioa, laborategia edo musika, informatika eta plastika gelak. Kanpoan berriz, hegoaldera eta mendebaldera irekita, kirol pistak eta aterpea egongo dira. Hauexek izango dira ikasleen jolastokiak, nagusiki.

Behe solairuan L forma izango duen eraikinak Derrigorrezko Hezkuntzako bi lerro hartuko ditu. Haur eta Lehen Hezkuntzako Pagasarri Ikastetxearekin parez pare eraikiko denez, institutu berria beste eraikin horrekin loturik egongo da, airean eraikitako oinezkoentzako pasabide baten bidez. Pasabide hau eraikita dago, dagoeneko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aurreikuspena da lan hauek 2016ko uda amaieran esleitzea. 18 hilabeteko exekuzio epea izango dute lanok, esleitu ondoren.

Pagasarribide BHIren eraikin berriaren ezaugarri nagusiak:

- 8 ikasgela arrunt
- 2 bikoizte gela
- 4 laguntza gela
- Tailer-gela
- Plastika gela
- Informatika gela
- Musika gela
- Zientzia laborategia
- Liburutegia
- Igogailua
- Jangela eta officea, 143 m<sup>2</sup>
- Gimnasioa eta aldagelak, 363 m<sup>2</sup>
- Aterpea, 176 m<sup>2</sup>
- Kanpoko kirol pista, 884 m<sup>2</sup>
- Solairuak: behe solairua + erdisotoa + 2 solairu
- Eraikitako azalera orotara: 3.3326 m<sup>2</sup>

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### **ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN PATRONATUKO KIDEAK IZENDATZEA ETA KENTZEA**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Etxepare Euskal Institutuaren Patronatuko kideak izendatzen eta kentzen dituen Dekretua. Honen bidez, Patronatuko ez-berezko kide kargutik kentzen da, euskal letrak, filologia eta kultura ordezkatzen dituen kide gisa, Lorea Bilbao Ibarra anderea. Haren ordez, ez-berezko kide izendatzen da, Amaia Espinosa Ibarra anderea.



## Osasuna

### OSASUN SAILAK KOLONEKO ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN DETEKZIO GOIZTIARRERAKO EUSKADIKO PROGRAMAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO ETA INFORMAZIO-KANPAINA BAT JARRI DU ABIAN

Osasuneko sailburuak, Jon Darpónek, gaur goizean **Gobernu Kontseiluaren ostean** eginiko prentsurrekoan, Osasun Sailak eta Osakidetzak abian jarri duten **Koloneko eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Programaren** inguruko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainaren berri eman du. Kanpaina honek prebentzio-programa bultzatzen jarraitzea eta parte-hartzea handitzea du xede. **Martxoaren 31n Koloneko Minbiziaren aurkako Nazioarteko Eguna** izango da.

Horrela, parte hartzera gonbidatuta dauden pertsona guztiek **–Euskadin, 50 eta 69 urte bitarteko herritarren % 100–** gonbidapen-gutun pertsonalizatuarekin batera **informazio-eskuorri berri** bat jasoko dute. Eskuorri horrek, aurrekoa baino **bisualagoa ta erakargarriagoa**, argi eta sinpleki azaltzen du **zer den** koloneko eta ondesteko minbizia, **nola prebeni daitekeen**, **norentzat den** programa, **noiz** egin behar den **proba**, **zertan datzan** proba eta **nola** egin behar den.

Osasuneko sailburuak azaldu duenez, kanpaina berri honek gonbidapena jasotzen duten pertsonak testa egitearen garrantziaz jabetzea du xede. **Testa proba sinple bat da; balizko lesio bat goiz detektatzeko aukera ematen du**, eta horrek, ondorioz, tratamendu ez hain agresiboak egin ahal izatea eta **biziraupena % 90etik gorakoa** izatea dakar berekin.

Era berean, **Osasuneko sailburuak programaren gaur egungo egoeraren berri eman dio Gobernu Kontseiluari**. Programak **parte-hartze altuenetako bat** du (% 71), eta **estaldura-maila oso aurreratuak**: lehen itzulian, 50 eta 69 urte arteko herritarren % 100. Datu horrek **koloneko eta ondesteko minbizia prebenitzeko herritar ororentzako programa onenen artean jartzen gaitu Espainian eta nazioartean, estaldurari, eraginkortasunari, kalitateari eta parte-hartzeari** dagokienez.

Alde horretatik, Osasun Saileko arduradunak seinlatu du **emaitza on horiek azken urteotan eginiko etengabeko esfortzuari eta lanari zor** zaizkiola, bai baliabideen hornidurari dagokionez, bai Osakidetzako profesionalen antolamenduari dagokionez, bai gizarte zibilari dagokionez (Minbiziaren aurkako Elkarteen eta Minbiziaren aurkako Aliantzaren bitartez).

Azken hiru urte hauetan, programaren estaldurak aurrerakada handia egin du. **Lehen gonbidapenean, % 100eko estaldura** lortu da; Espainian, berriz, % 20 da estaldura. **Hobetzen jarraitzea da helburua**. Horretarako, **2016. urtearen amaierarako, xede-populazioaren % 100 gonbidaturik egongo da bigarren itzulian**, eta **% 80 hirugarrenean**.

Era berean, **parte-hartzea sustatzen** jarraituko da, bereziki gizonen artean, baxuagoa baita haien parte-hartzea. Gizonen % 68k egiten dute proba; emakumeen artean, berriz, % 73 dira proba egiten dutenak. Eta, berez, gizonezkoek dute arrisku handiagoa lesio aurregaiztoak eta minbizia izateko.

**Koloneko eta ondesteko minbizia bigarren ohikoena** da, bai emakumeen bai gizonen artean Euskadin, bularrekoaren atzetik emakumeen kasuan eta prostatakoaren atzetik gizonezkoenean.

### ***Koloneko eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Programa***

Koloneko eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Programak berak emandako datuen arabera, duela 7 urte abian jarri zenetik gaur egunera arte **1.300.000 gonbidapen** egin dira, eta diagnostikoa baieztatzeko **50.000 kolonoskopia** egin dira testaren emaitza positiboa izan denean (% 5-6).

Baheketari esker, **diagnostikatutako 2.600 minbizi inbasiboen % 70 hauteman** ahal izan da garaiz, **eta 19.000 lesio aurregaizto** (adenoma aurreratuak) ere hauteman dira.

Zehazki, 2015ean 245.000 gonbidapen egin ziren guztira, eta parte-hartze altua lortu zen: % 71. Halaber, **9.124 kolonoskopia** egin dira, eta **465 minbizi inbasibo eta 3.194 lesio aurregaizto** hauteman dira.

### ***Martxoaren 31, Koloneko Minbiziaren aurkako Nazioarteko Eguna***

Koloneko Minbiziaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Osasuneko sailburuak, Jon Darpónek, programa honetan eta detekzio goiztiarrerako eta baheketarako Euskadiko beste programetan parte hartzeko deia egin du, minbiziaren aurka egiteko tresnarik onena baitira, ariketa fisikoa egitea eta hura prebenitzen laguntzen duten barazkiak eta frutak jatearekin batera.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### GOBERNU KONTSEILUAK JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA BERRIKUSTEKO PROZESUA HASI DU SALTOKI HANDIEI DAGOKIENEZ

- **Auzitegi Gorenaren irailaren 3ko 3866/2015 Epaia**ren ondorioz

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala, 2004an onartutakoa, berrikusteko izapideak egiten hasia, Auzitegi Gorenaren 2015eko irailaren 3ko 3866/2015 epaia betez. Aipatutako epaiak saltoki handietarako gehieneko azalerari mugak ezartzen dizkieten LPSaren zehaztapenak indargabetu egin baitzituen.

Saltoki handiei dagokienez, egin beharreko LPSaren berrikuspenak honako elementu hauek hartuko ditu kontuan:

- a. Egoeraren diagnostikoa:

- Merkataritza-jardueraren oraingo egoera eta lurraldean zer banaketa duen, zehazki hiriko saltokiei (bizitegi-lurzoruan dauden saltokiak), ohiko industrialdeetan kokatutako saltokiei edo berariaz kalifikatutako aldeetan hiri-kanpoaldeko lurretan kokatutakoei dagokienez.

- Merkataritza-jarduera eta biztanleen banaketa.

- b. Merkataritza-jardueraren lurraldeko banaketa orekatuan eragiten duten lurralde-faktoreak.

- c. Merkataritza-ekipamenduen arloko LPSaren berrikuspen partzialaren araudia.

Saltoki handiei dagokienez, LPSa berrikusten hasiko da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea, martxoaren 22an, epaia kontuan hartuta LPSaren honako interpretazio-irizpide hauek hartu ondoren:

1. Saltoki handien gehieneko azalerari mugak ezartzen dizkieten Antolamendurako Arauen zehaztapenak, epaiak erabat deusez jotzen dituenak, saltoki handien lurralde-erregulazioari buruzko 14. artikularen 2 zenbakiko c) eta d) letrei dagozkie; horrenbestez, aipatutako xedapen horren idazketa agiri honen I. eranskinean jasota dagoen moduan geldituko da.

2. Aurretik aipatutako epaiak indargabetutako xedapenen zuzenketa EHAAan argitaratuko da (LPSaren Antolamendurako Arauen 14. artikularen 2 zenbakiko c) eta d) letrek).



- 3.** Sailaren webgunean Antolamendurako Arauen zein LPSaren 7. puntuaren (saltoki handien lurralde-antolamendurako proposamenei buruzkoa) bertsio eguneratuak argitaratuko dira.
- 4.** Apirilaren 23ko 7/2012 Legean adierazitako betebeharrari eusten zaio (barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa); hau da, Udalek, udal-lizentzia eman aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren merkataritzaren arloko organo eskudunari txosten bat eskatu beharko diote saltoki handien ezarpena edo handitzea LPSaren irizpideekin bat datorren jakiteko. Epaiak gehieneko azalerari mugak ezartzen dizkioten zehaztapenak baino ez ditu indargabetzen eta, ondorioz, LPS osoa indarrean dago deusez jotako zehaztapenak kendu ondoren.
- 5.** LPSaren berrikuspen partziala egingo da, Eusko Jaurlaritzaren arrazoitutako erabakiaren bidez, Antolamendurako Arauen 3.1 artikulua azken lerrokadari jarraikiz.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK MUNGIAKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak Mungiako Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partziala onartu du. Idazketa berrian, udal-planeamendua prestatzeko garaian indarrean zegoena hartu dute eredu; hala, beti informatzeko helburuz, orain artean gertatutako aldaketa eta eguneraketa guztiak txertatuta izango ditu.

Lurralde Plan Sektorialak prestatzeko eta aldatzeko dokumentuak, plan hau indarrean jarri zen garaian onartu ez zirenak, planean jasotako erabakien arabera eguneratu beharko dira, Mungiako Eremu Funtzionalari dagokionez.

Nolanahi ere, Lurralde Plan Partzial hau indarrean jarri den garaian indarrean diren Lurralde Plan Sektorialak plan partzialean xedatutakora egokituko dira. Mungiako Eremu Funtzionalako udalerrien hirigintza-dokumentuak, Plan Orokorren formulazio-, berrikusketa- edo aldaketa-prozesuetan ari direnak eta plan hori indarrean jarri den garaian onartu ez direnak, egokitu egin beharko dira plan horretan jasotako xehetasunen arabera.

Indarrean den udal-hirigintza planeamendua plan horretan xedatutakoaren arabera egokitu beharko da, indarrean jarri eta bi urteren buruan.

Mungiako Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialak Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia udal-mugarteak biltzen ditu. Plan honen helburua eremu funtzionalaren lurralde-antolamendu jasangarria hamasei urterako zehaztea da, haren lurralde-egitura eta -eredua ezarriz. Planari egokitu beharko zaizkio udal-plangintzak, Lurralde Plan Sektorialak eta eremu funtzionalean eragina duten bestelako jardunak.

Planaren lurralde-ereduak honako helburu hauek ditu: ekonomia berriaren sostengua den ekoizpen-esparrua sortzea eta artikulatzea; osotasun metropolitarraren integrazio funtzionala hobetzea garraioari dagokionez, bai errepidekoa, zeinak beste funtzio batzuk ere betetzen dituen, baita garraio publikoa ere (trena batez ere), guztia ere, elkargune esparru batean eta moduzko banaketa berri baten aldeko apustua eginez (ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun txikiagokoa); lurzoruaren urritasunari erantzuteko egoitza-esparrua eskari berrietan eta askotarikoetan biltzea, eskaintza zabalagoa eginez eta, era berean, lekuaren, tipologiaren eta salneurriaren arabera dibertsifikazioa eginez.

Metropoli moderno eta lehiakor baten ingurumen-esparru baliotsua integratzea, gaur egun inoiz baino ezaugarri garrantzitsuagoa baita, eta zerbitzuak eta haien kalitatea bermatuko ditu, gutxieneko zerbitzuentzat mugatu gabea eta ingurumen-ikuspegi zabalarekin.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK EKP-EUSKADIKO KIROL PORTUA S.A. ENPRESAREN ESKU UTZI DU KIROL-PORTUETAKO PORTU-TASAK BILTZEKO KUDEAKETA**

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Kirol Portua, S.A.ren esku utziko du portu-tasak jasotzeko egitekoa, baldin eta Euskadiko Kirol Portua, S.A.k bere gain hartua badu kirol-portuaren zerbitzu publikoa; hala, sozietateak modu autonomoan antolatu beharko ditu behar besteko bitarteko materialak eta pertsonalak, zerbitzua emateko garaian kudeaketa eraginkorra izan dadin.

Euskadiko Kirol Portua, S.A. sozietateari egokitzeko bilketa-lanak tasen bilketa kudeatzeko esparruan egingo dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak izango du ekintza juridiko jakinak emateko eskumena.

Euskadiko Kirol Portua, S.A.k kirol-portuetan portu-tasak ezartzeak sortzen dituzten baimenak eta kontzesioak prestatuko ditu, baita kirol-portuei dagozkien kitapenak edota, hala dagokionean, hazkunderen, hobariaren, kenkariaren eta exentzioen aplikazioa ere; horretarako guztira, beharrezko tributu-kudeaketa oro egingo ditu tributuen zenbatekoak zehazteko, eta portuen alorreko eskumena duen sailaren izenean portu-tasak bilduko ditu. Era berean, aurkeztutako dokumentazioa hartzea eta izapidetzea (esate baterako, zatikatzeko eta geroratzeko eskabideak, erreklamazioak eta errekurtsioak), bai eta ebazpen-proposamenak bidaltzea ere portuen alorrean eskumena duen Jaurlaritzaren sailera.

### **ELENA UNZUETA, URKIOLAKO PARKE NATURALEKO PATRONATUKO PRESIDENTE BERRIA**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Elena Unzueta Urkiolako parke naturaleko patronatuko presidente berri izendatzeari. Unzueta Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasuneko eta Ingurune Naturaleko Departamentuko foru-diputatua da.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

**GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO HERNANI ETA ASTIGARRAGA ARTEKO TRENBIDE-SARE BERRIAREN PLATAFORMAREN AURREKONTUA  
6.774.808,87 € HANDITZEARI**

Gobernu Kontseiluak onartu du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Hernani eta Astigarraga arteko trenbide-sare berriaren plataformaren aurrekontuaren zenbatekoa 6.774.808,87 € handitzea (EzA barne)

Hernani eta Astigarraga arteko trenbide-sare berriaren plataforma Euskal Autonomia Erkidegoko 2016rako Aurrekontu Orokorretan kargatuta finantzatzen da. Honako hauek dira urteko zenbatekoak: 2016: 2.041.517,79€; 2017: 4.043.004,67 €; eta 2018: 690.286,41 €

**GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO ANDOAIN ETA URNIETA ARTEKO TRENBIDE-SARE BERRIAREN PLATAFORMAREN AURREKONTUA  
7.534.019,73 € HANDITZEARI**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Andoain eta Urnieta arteko trenbide-sare berriaren plataformaren lan-kontratua aldatzeari. Esandako lanak Estatuko Administrazio Orokorrekin eta ADIFekin sinatutako hitzarmenaren barruan egingo dira, Euskadin trenbide-sare berria eraikitzeko, eta aurrekontura 7.534.019,73 € gehiago bideratuko dituzte (BEZa barne). Honako hauek dira urteko zenbatekoak: 2016: 7.534.019,73 €

## Presidencia

### EL CONSEJO DE GOBIERNO DA LUZ VERDE A LA INCORPORACIÓN DE NAVARRA A LA EURORREGIÓN AQUITANIA-EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su sesión de hoy la suscripción del convenio de adhesión de la Comunidad Foral de Navarra a la Agrupación Europea de Cooperación Territorial “Eurorregión Aquitania-Euskadi”. El pasado viernes la Eurorregión en asamblea aprobó esta incorporación. En un acto posterior el Lehendakari Iñigo Urkullu y el Presidente de Aquitania Alain Rousset dieron la bienvenida a la corporación europea a la Presidenta de Navarra, Uxue Barkos.

El Consejo de Gobierno ha constatado que la Eurorregión “crece” y gana en dimensión y capacidad de influencia. La agrupación europea afronta una “nueva etapa” con más fortaleza, tanto al norte como al sur. Además de la adhesión de Navarra, cabe destacar que tras la reestructuración regional de Francia, Aquitania incorpora a Limousin y Poitou-Charentes. Así, la Eurorregión pasa de 5,5 a 8,7 millones de personas.

#### Proceso de adhesión

Ya existía anteriormente una cooperación transfronteriza periódica entre Euskadi, Aquitania y Navarra. Sin embargo, el año 2011 es un punto de inflexión ya que se dota a la Eurorregión de personalidad jurídica gracias a la figura europea de Agrupación Europea de Cooperación Territorial – AECT.

El 12 de diciembre de 2011 se creó la AECT-Eurorregión Aquitania-Euskadi y en octubre de 2015 Navarra solicitó su incorporación. En la asamblea del pasado viernes la Eurorregión Aquitania-Euskadi votó a favor de su adhesión. Una decisión que debe ser ratificado por los Consejos de Gobierno de cada Ejecutivo. Hoy el Gobierno Vasco da luz verde a esa nueva incorporación.

A continuación el acuerdo deberá ser adoptado por el Consejo de Ministros de Gobierno español y comunicado al Estado francés, por lo que la adhesión Comunidad Foral de Navarra a la Eurorregión será efectiva en el plazo de 6 meses.

#### Balance 2015 y futuro

Tras la asamblea de la Eurorregión, el Lehendakari ha puso en valor el trabajo realizado durante el último año siguiendo las líneas marcadas por el Plan Estratégico aprobado hace dos años, la “hoja de ruta” hasta 2020. Defendió que los tres ejes centrales de la estrategia salen reforzados: ciudadanía eurorregional, con la mejora de la conectividad y la actividad cultural; la economía del conocimiento y la formación, la innovación competitiva y la empresa; y por último, territorio sostenible con el fomento del transporte y la movilidad.

Posteriormente dio a conocer algunos de los proyectos para el futuro. De cara al próximo año la Eurorregión impulsará el proyecto DSS2016, capital europea de la cultura; el proyecto “zubiak” para la producción de emisoras de radio en euskera; un portal de información para personas trabajadoras y empresas; se pondrá en marcha el



nuevo sistema de FP eurorregional y se realizará la primera convocatoria de becas Global Training a nivel de Eurorregión

El presupuesto fijado para la Eurorregión en 2016 se mantendrá en 1,1 millones de euros financiado a partes iguales por Euskadi y Aquitania. Además de la dotación de los gobiernos miembro, la Eurorregión recibe subvenciones para proyectos concretos por parte de la Unión Europea.

### **Cambio en la presidencia**

En dicha asamblea se procedió al cambio en la presidencia de la Eurorregión que se rota cada dos años. El Lehendakari entregó a Alain Rousset la “makila” como símbolo de liderazgo en la agrupación europea.

## Administración Pública y Justicia

